



AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA IKUSKARITZARI BURUZKO EKAINAREN 28KO 98/2016 DEKRETUA ALDATZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA EGITEKO PROZEDURA HASTEN DUENA

AZALPEN-ZATIA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak beharrezkotzat jo du Hezkuntza Ikuskaritzaren esparru arautzaile berri bat egiteko prozedura hastea, indarrean dagoen 98/2016 Dekretua aldatuz. Erabaki horren oinarria da ikuskaritza-lanaren erregulazioa eguneratu eta sistemaren hezkuntza- eta antolaketa-errealitate berrietara egokitu behar dela, eraginkortasuna, koherentzia eta egungo lehentasun estrategikoekiko lerrokadura bermatuz. Era berean, ezinbestekoa da dekretu berria arau-aldaketa berrietara egokitzea, besteak beste Hezkuntzaren Euskal Legera, indarrean dagoen esparru juridikoan erabat integratzen dela ziurtatzeko eta araudi autonomikoak planteatutako eskakizun eta erronka berriei erantzuteko. Era berean, dekretu berria Hezkuntza Sailaren egitura organiko berrira egokitu beharko da, haren artikuluek egungo barne-antolaketa islatu eta inplikaturako unitate eta zerbitzuen eraginkortasuna eta koordinazioa errazteko.

Arau-proiektua idatzi aurretik, eta Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearekin bat etorritik, kontsulta eta parte-hartze publikoko jarduketak sustatu dira, bai eta horiek administrazioaren gardentasunerako eta gobernu irekirako plataformetan zabaltzea ere, herritarren eta eraginpean egon daitezkeen erakundeen iritzia jasotzeko.

Barne-azterketek agerian utzi dituzte Dekretu berriak Hezkuntza Ikuskaritzaren etengabeko hobekuntza bultzatzeko aprobetxatu nahi dituen hainbat aukera. Aurrerapen-ildo nagusien artean, honako hauek nabarmentzen dira: lau urteko plangintza bat proposatzea, ikuspegi estrategiko zabala eta egungo erronketara egokitua ahalbidetuko duena; zerbitzuaren barne-ebaluazioan eskumen-esparrua aipatzea; jarduketa-printzipioak txertatzea; ikastetxeetarako orientazioa indartzea; eta alderdi organiko eta funtzionalak optimizatzea, hala nola lurralde-antolamendua eta ikuskatzaileen lan batzuetako espezializazioa, egitura kohesionatuagoa eta dinamikoagoa lortzeko.

Oro har, neurri horiek adierazten dute Hezkuntza Sailak konpromiso irmoa duela Hezkuntza Ikuskaritzari euskal hezkuntza-sistemaren egungo eta etorkizuneko eskaerei eraginkortasunez erantzuteko behar diren tresnak emateko, eta nabarmentzen dute Sailak hezkuntza etengabe garatzeko eta hobetzeko ikuskaritza-lanari ematen dion garrantzia eta funtsezko balioa.

Era berean, egokitutako jotzen da langileak kudeatzeko irizpideak modernizatzea. Bereziki, zonako burutzen estaldura eguneratzeko beharra planteatzen da. Eguneratze horri esker, errazagoa izango da talde kohesionatuagoak eratzea, non buruzagitzen hautaketak kontuan hartuko baititu profilen osagarritasuna eta Zerbitzuaren helburu estrategikoekiko bat-etortzea.

Era berean, beste lanpostu batzuk aldi baterako betetzen dituzten ikuskatzaileei aplikatu beharreko erregulazioa hobetzea proposatzen da.

Hautaketa-prozeduren kalitatea eta egokitasuna indartzeko, kasu praktikoen ebazpena proben funtsezko zati gisa sartzea planteatzen da. Neurri horri esker, izangaiek ikuskaritza-lanaren berezko egoera errealei aurre egiteko duten gaitasuna baloratu ahal izango da, eta, horretarako, haien gaitasun teknikoak, irizpide profesionala eta indarrean dagoen araudia testuinguru zehatzetan aplikatzeko trebetasuna ebaluatu ahal izango dira.



Gainera, hautaketa-prozeduretan bermatuko da hautaketa-proben zati bat euskaraz egiteko aukera, Ikuskaritzaren barruan nahiz ikastetxeekiko eguneroko elkarreraginean euskara ohiko lan-hizkuntza dela kontuan hartuta, eta, horrela, koofizialtasuna errespetatzen dela bermatuko da.

Ekimena bat dator hezkuntza-ikuskaritzaren arloko estatu-esparrua eguneratzeko joera berriekin, zuzendaritza-taldeei eta hezkuntza-komunitateari aholkularitza, laguntza eta orientazioa emateko funtzioak indartzeko beharra azpimarratzen baitute. Euskal Autonomia Erkidegoak bere Hezkuntza Ikuskaritzaren antolaketa eta funtzionamendua eratzeke eskumena badu ere, komeni da araudi autonomikoan sartzeko lidergo pedagogikoa eta etengabeko hobekuntza indartzen dituzten aurrerapen kontzeptualak, identifikatutako helburu estrategikoekin guztiz bat datozenak.

Horrez gain, kendu egiten da arau-testuan ikuskatzaile-kopuruari buruz egiten den egungo erreferentzia, eta aurrerantzean lanpostu-zerrenda (LPZ) arautzeko uzten da. Neurri honen helburua da zerbitzuaren etorkizuneko eguneratzeak eta beharretara egokitzea arintzea, Hezkuntza Ikuskaritzan giza baliabideen kudeaketa malguagoa errazteko.

Dekretu berriak Ikuskaritzaren irizpide teknikoaren independentzia indartzen jarraitzen du, lanbidean jarduteko, txosten zorrotzak egiteko eta ikasleen oinarrizko eskubideak babesteko funtsezko berme gisa, arreta berezia jarritz adingabearen interes gorenean.

Era berean, dekretu berriak prestakuntzari buruzko alderdiak jorratzen ditu, Euskadiko Ikuskaritzaren eskumen-esparrua erreferentziazat hartuta.

Azaldutakoaren arabera, egokia da dekretu berria egiteko prozedura hastea, 6/2022 Legearen aurreikuspenen arabera eta aurretiazko kontsultaren, gardentasunaren eta parte-hartze publikoaren eskakizunekin bat etorritik, etorkizuneko erregulazioaren kalitatea eta eraginkortasuna bermatzeko.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT

1. Artikulua. — Prozedura hastea

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzari buruzko ekainaren 28ko 98/2016 Dekretua aldatzen duen dekretu-proiektua egiteko prozedura hasteko agintzea.

2. Artikulua. — Dekretu-proiektua egiteko premisak

a) Xedea eta helburua. Hezkuntza Ikuskaritzaren erregulazioa eguneratzea, ikastetxei aholkularitza eta orientazioa emateko eginkizunak indartzea, independentzia teknikoaren, gardentasunaren eta etengabeko hobekuntzaren printzipioak finkatzea, eta lau urteko plangintza eraginkorragoa ezartzea.

b) Bideragarritasun juridikoa eta materiala. Hezkuntza Sailaren berezko eskumenetara egokitzea eta autonomia-erkidegoko eta estatuko araudi aplikagarriarekin bateragarria izatea; antolaketa-inpaktua aztertzea ikuskaritza-zerbitzuan, langileen artean eta ikastetxeetan.

c) Ordenamendu juridikoan izango dituen ondorioak. Eragindako xedapenak identifikatzea, bereziki 98/2016 Dekretua, bai eta beharrezkoak diren aldaketa esplizituak edo inplizituak ere.

d) Eragindako arau-ingurunea. Loturak hezkuntza-legeriarekin, funtzio publikoari eta administrazio-antolamenduari buruzko araudiarekin, bai eta hezkuntza-sistemaren kalitateari eta ikastetxeen gobernantzari buruzko erregulazioarekin ere.

e) Izapideak eta txostenak. Nahitaezko txosten orokorrak eta espezifikak sartzea; zehazki, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren txostena eskatuko dira. Era berean, hezkuntza-sistemaren organo aholku-emaileen edo parte-hartzaileen txostenak eskatuko dira, baldin eta haien esku-hartzea beharrezkotzat jotzen bada. Txosten horiek honako hauek izango dira: Sailaren Txosten Juridikoa, Emakunderen Txostena, Hizkuntza Politikako Txostena, Funtzio Publikoaren Txostena eta Euskadiko Eskola Kontseiluaren Txostena. Entzunaldia eta jendaurreko informazioa izapidetuko dira Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen arabera bidezkoa denean.

f) Proposatutako erregulazioaren edukia. Jarduteko printzipioak arautzea (independentzia teknikoa, gardentasuna, oinarrizko eskubideen defentsa), lau urteko plangintza, barne- eta lurralde-antolamendua, etengabeko prestakuntza eta ikuskaritza-funtzioaren jardunaren ebaluazioa.

3. Artikulua. — Prozeduraren instrukzioa eta koordinazioa

Hezkuntza Politiketako Sailburuordetzaren esku uzten da proiektua egiteko lanak koordinatzea, hargatik eragotzi gabe gaiaren arabera esku hartu behar duten beste organo eta administrazio-unitate batzuen parte-hartzea.

4. Artikulua. — Kontsulta, entzunaldia eta jendaurreko informazioaren izapidea

Proiektuak, hala dagokionean, aurretiazko kontsulta publikoa, entzunaldia eta informazio publikoa izango ditu, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean eta gardentasunari eta gobernu irekiari buruz aplikatu beharreko araudian xedatutakoaren arabera, eta dagozkion plataforma korporatiboetan argitaratzen dela ziurtatuko da.

5. Artikulua. — Idazketa elebiduna

Dekretu-proiektuaren testua euskaraz eta gaztelaniaz idatziko da, bi bertsioen baliokidetasun juridikoa bermatuz, eta izapidetze elektronikoan idazketa elebidunerako ezarritako metodoei jarraituko zaie.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean,

BEGOÑA PEDROSA LOBATO
Hezkuntzako sailburua